



(m) 2001

eta Marga Berra bertsolari gazteak izango dira.

Hitzaldiak

Etxe sorginduak / Durango. Etxe sorginduei buruzko hitzaldia emango dute bihar, ostirala, Sapuetxe gazte txeko tabernan, arratsaldeko 19:30ean.

Bestelakoak

Pasaia sarraskia / Azpeitia. Bihar 18 urte beteko dira Komando Autonomo Antikapalistetako lau kide Pasaian hil zituztela, eta Azpeitian sarraski hura salatzeke ekintzak antolatu dituzte. Gaur, 20:30ean, *Pasaia sarraskia argitu: epaiketaren gorabeherak* hitzaldia emango dute Aitonenean. Bihar, Benito Lertxundiren kontzertua izango da kiroldegian, 22:00etan, eta larunbatean, azkenik, egun osoan egingo dira ekintzak. 12:30ean bertso poteoa; 14:30ean herri bazkaria Berdura plazan; ondoren Elektrotuna txaranga; 22:00etan, manifestazioa; eta 23:00etan kontzertua plazako arkupean izango dira.

Hainbat / Iruñea. Fun-Tsak taldea astialdia berpizteko saioak antolatzen hasia da. Martxoko igande guztietan, Iruñeko Niza tabernan, DJak, kantariak, ikus-entzunezkoak eta abar izango dira, 20:00ak eta 23:00ak bitartean.

EUSKAL HERRIKO MUSIKA ETA SORKUNTZA ZUBEROAN

Xiru 13 jaialdia sormen giroan egingo da asteburu honetan. Euskal Herriko musika, antzerki eta dantza tradizionalaren hainbat ezaugarri plazaratuko dira hiru egunez, betiere sormen lan berriak proposatu eta etorkizuneko tradizio bat eraikitzeke asmoz. Hala, ihauteriak, toberak, maskarada, antzerki saioak.... egitarau oparoa du jaialdiak, eta Maule eta Gotainen izango da haiekin gozatzeko aukera.



EGITARAUA

OSTIRALA

• 21:00etan, Maule gaineko plazan: *Gaü pasa, gaü basa* ikuskizuna: 50 dantzari, musikari eta antzerkigile bilduko dira, eta beraiekin batera Uztaritzeko inauteriko parte-hartzaileak, Le Petit Theatre de Pain antzerki taldea eta Robert Callas eta Ugutz Robles kontalariak izango dira.

LARUNBATA

• Maule: Eskuilako Maskarada. 10:30ean barrikadak eta 15:30ean arratsaldeko saioa izango dira.
• Gotaineko Gelan 21:00etan: *Antzerki zaharra hats berria* izenburua aintzat hartuta La Moscheta, Hegalak eta Julot Torride antzerki taldeek antzinako antzerki obrak eguneratuta aurkeztuko dituzte.

IGANDEA

• Gotainen, egun osoan: *Harro harro karrika* izena eman diote egun osoko festa honi. Goizean meza, pilota partidak, dantza jauziak eta herri bazkaria izango dira. Arratsaldean, dantza, antzerkia eta musika saioak

Ikastaroak

Herri dantzak / Erreterria. Ereintza Dantza Taldeak herri dantzen ikastaroa antolatu du. Bertan muxikoak, fandangoa eta arin-arina, balsak, pasodobleak eta abar erakutsiko dira. Izen emateko edo informazioa eskatzeko telefono honetara deitu daiteke: 943-52.65.53.

Gazteentzako ikastaroak / Galdakao. Barandiaran AEK euskaltegiak, *Gazte eskolak* jardunaldien barruan, gazteentzako lau lantegi antolatu ditu, udalaren eta Urtxintza eskolaren laguntzarekin. Autoestimari buruzko ikastaroa asteartean hasi zen, eta gaur eta datorren asteartean izango dira hurrengo eskolak. Sexualitateari buruzkoa martxoaren 14, 19 eta 21ean egingo da. Drogamenpekotasunari dagokiona apirilaren 9, 11 eta 16an egingo dute. Eta, azkenik, *euskal jolasak* izeneko lantegia apirilaren 18, 23 eta 25ean emango dute. Ikastaro guztiak arratsaldeko 19:30etik 21:30era izango dira. Matrikulak 10 euro balio du, eta izena emateko euskaltegiara deitu behar da: 944564119 edo barandiaran@aeknet.net.

Hainbat ikastaro / Azpeitia. Zapo Txoko gaztegunek Internet, sukaldaritza eta dantza garaikideari buruzko ikastaroak antolatu ditu 13 eta 30 urte bitarteko gazteentzat. Interneteko ikastaroa Aitor Priyak eskaini-

ko du, ostiraletan, 18:00etan, eta 3 euro kostako da. Sukaldaritza irakasleak Zapo Txokoko hezitzaileak izango dira. Ikastaro hori ostegunetan izango da, 19:00etan, eta 6 euro balio du. Azkenik, dantza garaikideari buruzkoa larunbatean emango dute, 10:00etatik 13:00etara, eta 18 euro balio du. Adeshoras taldea izango da ikastaro horretako gidaria. Informazio gehiago, 943157161 telefonoan, eta izen ematea Gazte Bulegoan.

Deialdiak

AHTren kontrako manifestazioa / Hernani-Astigarraga. AHT gelditu! Denon esku dago lelopean, manifestazioa egingo da larunbatean Hernanitik Astigarragara. Irteera arratsaldeko 17:30ean izango da Hernaniko Ezkiaga pasealekutik, eta ondoren, Astigarragan, kontzertua izango da 21:00etan Jauko Barik, Morau, Lif, Tapia eta Leturia eta Ttakunpa taldeekin..

Sagaydotegia / Astigarraga. EHGAmerakundeak *Sagaydotegia* antolatu du hilaren 23rako, eta bertan parte hartu edo berari buruzko informazioa jaso nahi duenak telefono honetara deitu beharko du: 943-47 26 17.

pentsatu, egin eta izan

Gazte Topagunea

guk iraultzaz

TOPIPENDENTZIA

Egunkaria laguntzailea

ELORRION MARTXOAK 29-30-31